

KONPAINIAK

NORI ZUZENDUA:

Berriki sortutako ikuskizunak aurkezten dituzten antzerki- eta dantza-konpainia profesionaleri, baldin eta ikuskizunok, jatorriaren arabera, gehienez ere data hauez geroztikoak badira:

- Euskal konpainiak: 2015ko martxoaren 14a.
- Estatuko konpainiak: 2015ko martxoaren 14a.
- Atzerriko konpainiak: Estreinaldiak edo Espainian oso emanaldi gutxi izan dutenak.

Oharra: Estatuko eta atzerriko konpainien kasuan, aintzat hartuko dira estreinaldiak eta erakunderen batek bidaiak finantzatzea.

NOLA PARTE HARTU:

Arte-proposamenen aurkezpena:

dFERIA-n parte hartzeko interesa duten konpainiek webgunean eman beharko dute izena: www.dferia.com. Han aurkituko dute bete beharreko izen-emate fitxa, eta ikuskizunaren dossier osoa eta fitxa teknikoa erantsi beharko dizkiote, **irailaren 17a eta urriaren 9a bitartean**. Antzerki-lanaren DVDa honako helbide honetara bidali beharko da:

dFERIA DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Victoria Eugenia Antzokia
Erregina Erregeordearen kalea, 8
20003 Donostia/San Sebastián
E-mail: dferia@donostia.eus
Webgunea: www.dferia.com

dFERIA-K HAU ESKAINTZEN DIE HAUTATURIKO KONPAINIEI:

- Akreditazioa eta dFERIAk irauten duen egunetarako ostata konpainiaren ordezkari batentzat.
- Sarrera bat ordezkari akreditatu eta ikuskizun bakoitzeko, aurrez erreserba egin ondoren.
- Topagunerako sarbidea.
- Ikuskizunen emanaldirako, antolatzaileek bere gain hartzen dituzte cachearen % 50, beharrezko ostatu-gastuak (beharrezko balira), dieta eta antzoki bakoitzaren fitxa teknikoa.
- Konpainiak adierazitako zenbait programatzaile gonbidatzeko aukera.

HAUTATURIKO KONPAINIAK dFERIAREKIN HARTZEN DUTEN KONPROMISOA:

- Egindako salmenten kopurua hiru unetan jakinaraztera: feria amaitutakoan, hiru hilabetera eta, azkenik, sei hilabetera.
- Ikuskizuna ferian erosteagatik % 10eko deskontua egitera.

Izen-emate orria dFERIAko webgunean dago eskuragarri: www.dferia.com

donostiakultura.com

Erregina Erregentea / Reina Regente, 8
20003 • Donostia/San Sebastián
tel +34 943 483 860 • faxa +34 943 481 969
dferia@donostia.eus • www.dferia.com